

Hitzontzi

Literatura sorkuntza

MAYI ARIZTIA



Elena Odriozola

Arttoren istorioa

Behin bazen gizon bat, Artto izenekoa, etxean erbi bat zeukana. Egun batez, esku hutsik zetozen bi ehiztari hurbildu eta esan zioten:

—Artto, erbi hori saldu behar diguk.

—Erbiak enkarguak egiten dizkit, ordea. Oso mesedegarria zait eta ezin dizuet saldu —izan zen Arttoren ezezko arrapostua.

Baina ehiztariak tematu baitziren, kosta ahala kosta erbia nahi zutela eta diru asko emango ziotela, azkenean Arttoren erbiarekin abiatu ziren. Etxera itzuli zirelarik, nahi zituzten gauzak gutun batean idatzi eta haien bila bidali zuten erbia. Baina erbia dendara ez eta tarrapataka joan zen gogoak eman zion tokira. Berantetsirik, ehiztariak Arttorengana itzultzea eta hari kargu hartzea erabaki zuten.

Alabaina, jaun haiek joango zitzaizkiola jakitun, Arttok baratzean zulo handi batzuk egin eta han urrea sartzeari ekin zion. Eta ehiztariak inguratzen ikusi zituelarik, aitzur eta aitzur hasi zen, urrea atera eta atera.

—Zertan ari haiz hor, Artto? —galdegin zioten.

—Urre ateratzen —hark arrapostu.

—Posible ote da aitzur horrekin urrea ateratzea? —ekin zuten.

—Izango ez da ba! Familia ondasun hauexekin ateratzen dut aurrera.

—Artto, aitzur hori saldu behar diguk —amaitu zuten, erbiarena ahantzirik.

Oraingo honetan ere Arttok ez zien saldu nahi izan, baina ehiztariak tematu baitziren eta diru



asko eman baitzioten, azkenean aitzurrarekin abiatu ziren. Etxera itzuli zirelarik, baratzeraz joan, eta aitzur eta aitzur hasi ziren, baina urrerik ez atzematen. Artto miletan madarikatuz, harenera itzuli ziren beren amorrazioa askatzera.

Alabaina, jaun haiek joango zitzaizkiola jakitun, Arttok urrea hartu eta astoari janarazi zion. Eta ehiztariak inguratzen ikusi zituelarik, joan astoaren gibelaldera, ipurdipean ontzi bat ipini eta, plost-plost, haren urre puska jaso zituen.

—Zertan habil hor, Artto? —galdegin zioten.



—Kakatik urreak ateratzen. Astoari ongi jaten eman eta gero horrelakoak ateratzen ditut.

—Artto, asto hori saldu behar diguk —ekin zioten, erbia eta aitzurrarena ahan-tzirik.

Orduan ere gogotik saiatu baitziren eta eta diru asko eman baitzioten, azkenean astoarekin abiatu ziren. Etxera itzuli zirelarik, bazkatu zuten astoa ahal bezain ongi, ipini zuten ontzia, baina hark urrea ez beste guztia eman zien. Deabruak harturik, ehiztariak Artto hil behar zutela erabaki zuten.



Elena Odriozola

Alabaina, gizon haiek koleran joango zitzaizkiola jakitun, Arttok emazteari esan zion:

—Zahato hau ardoz bete eta bularraldean ipiniko dinat. Jaun horiek etortzen direnean, labankada bat eman eta hire burua lurrera botako dun, eta egingen dun hilarena. Gero joko dinat tutu bat eta zutitu egingo haiz.

Noizbait ere heldu ziren gizon haiek eta, labanak atera aurretik Artto emaztearekin eztabaida sutsuan ikusi zuten. Gero eta haserretuago, gero eta suminduago, halako batean labanaz ziztada bat eman zion. Anderea lurrera ziplo jaustean, ehiztari harrituak Arttori galdegin zioten:

—Erotu egin al haiz? Hik egin duk ezegitekoa...!

—Nik nahi dudanean, nire koleran, horrelaxe hiltzen dut emaztea, eta nahi dudanean pizten...



Orduan sakeletik tutu bat atera eta, ttu-ttu-ttu jotzen hastean hara non zutitu zitzaien emaztea!

—Anderea piztea mirakulua da! Harrigarria da! Artto, tutu hori saldu behar diguk —amaitu zuten, erbia, aitzurra eta astoarena ahantzirik.

Oraingo honetan ere Arttok uko egin zien, baina ehiztariak hain egoskor ikusirik, azkenean tutuarekin bidali zituen. Eta ehiztariak beren etxeetara itzuli zirelarik, nork bere emaztea garbitu zuen. Gero ttu-ttuka jardun zuten, baina emazteak ez berpizten. Inoiz baino haserreago, Artto itotzera deliberatu ziren.

Arttorenera itzuli zirelarik, hura zaku batean sartu, bizkarrera jaso eta bidean aurrera abiatu ziren. Baina egarritu baitziren, ostatu batean sartu ziren kluka bat edateko asmotan. Artto zakuan utzi zuten, ostatuaren kanpoaldean, eta orduan-txe artzain bat heldu zitzaion. Zakuari heldu eta haren barnetik entzun zuen:

—Utzi, utzi zakua! Hemen jende bizia da!

—Zertarako zaude zakuan? —artzainak galdegin.

—Errege baten alabarekin ezkondu nahi naute, baina ez baitut nahi, zaku honetan sartu naute. Nahi al duzu nire ordez sartu?

—Bai, gogotik —artzainak arrapostu.

Eta sartu bazen, sartu zen, eta Artto joan zen gizonaren artaldearekin. Eta ehiztariak ere irten baziren, irten ziren, eta hurbileko zubi batetik artzaina bota zuten uretara. Eta behingoz poza-ren pozez sentitu ziren, Artto hil zutela eta. Baina bide apur bat egina zutela, nor eta Artto ikusi ez zuten ba!

—Ez duk posible! Arestian guk uretara jaurti eta orain hi hemen...

—Bai, ni hemen... Zuek bota nauzuen tokitik artalde hau atera dut nik!!!

Atzera begiratu eta zakua uretan igerika bistatu zuten.

—Zertan ari da beste hura han?

—Ardi onenak bereizten.

Orduan ehiztariak zubira itzuli eta, zaku banatan sarturik, beren buruak uretara bota eta bertan hil ziren. Eta fini.



Patxi Zubizarretaren moldaketa

Ipuin originala Mayi Ariztiaren *Amattoren uzta* (Elkar, 1982) liburutik hartua dago. Elena Odriozolaren ilustrazioak, berriz, *Irakurgaiak 1* liburutik (Edebé-Giltza, 1998)